

Leihoa zabaldu

Amagoia Mujika
Telleria

Leihoa zabaldu eta aire hotza aurpegian sentitzea. Itxi usainetik askatzen zarela sumatzea, hotzez oilo ipurdia jarri arren. Zenbat arnasa eman digun feminismoak, zenbat korapilo askatu. Askatu diren adina edo gehiago daude borrokatzeko oraindik, baina aurrera goazela sentitzea askatzailea eta atsegina da.

Emakumeen belaunaldi gazteei begiratzea gozamina da. Maitasunen eta desiren zurrumbiloan dabiltzan nerabeak gu baino askeago sumatzen ditut. Esperimentatzeko pronto, probatzeko ginez. Askatasun handiarekin adierazten dute zer gustatzen zaien eta garai bateko armairu itxiak ez ditut hain itxi igar-

tzen. Honi neskak gustatzen zaizkiola, hari mutilak, beste hura pertsonekin maitemintzen dela. Eta batez ere, inongo laukitxotan sailkatuak izateko beharrik gabe sumatzen ditut. Auskalo zer gustatzen zaien gaur eta zerk tentatuko dituen bihar. Leihoa zabal-zabalik dute-la sentitzen dute.

Sistemak badaki zer nolako emakumeak eraikitzea komeni zaion. Horretan daramatza mendeak. Baina batzuetan, egun baikor samarra dudanean, sistematik kanpo dantzan gero eta emakume gehiago ikusten ditut.

Ez zait gauza bera gertatzen gizonezkoekin. Neskato askok sinetsi dute nahi duten bezalakoak izan daitezkeela, izan

daitezkeela astakirtenak, ausartak, lotsagabeak. Izan daitezkeela suhiltzaile. Baina gure mutikoei begira konturatzen naiz leihoak ez daudela zabalik. Penaz ikusten dut mutikoei ez zaiela baimentzen bigunak, negartiak, sentiberak, koldarrak izatea. Eta nerabetan, ezkutuago eta larriago daude armairuetan, sexu askatasunik kabitzen ez den armairu horietan.

Sistema matxista honek ez ditu bakarrik emakumeak eraikitzen, gizonak ere eraikitzen ditu. Eta etxe horretan ere leihoak zabaltzea oso osasuntsua litza-teke, zahar usaina kanporatu eta haize freskoak betiko maskulinitateak astindu ditzan. Denon mesedetan. •

Eutanasia Legea bai! Eta bitartean?

Xabier Mikel
Errekondo

Betitik izan dut gustuko bizitzaren inguruko eztabaida lagunartean. Eta argi daukat bizitza gutako bakoitzak daukagun bizitzeko aukera dela, bat eta bakarra. Argi daukat bizitzak norberaren baloreetan oinarritutako bizi kalitateaz osatua behar duela; bestela ez duela merezi.

Esango nuke gehienok barneratuta daukagula denbora baterako gaudela hemen, lehenago ala beranduago hil egingo garela eta, Jainkoak eramango ez gaituenok behinik behin, heriotzari eskatzen diogula azken uneak sufrimendurik gabeak izan daitezela; laburra eta oinazerik gabea.

Errealitatea baina gordina da eta adibide ugari daude: Ramon Sampedor, Alain Cocq... Oinaze iltzatu eta konponezinean harrapatuta, zaintza paliatiboan amaraunean preso, mendekotasun larrian, sufrimendu eraman ezinaren txarrrantxan bilduta sekulako, eutanasia eske garrasi isila. Jendartearen gehiengo zabalak aspaldidanik aldarrikatzen duen Eutansiaren Legea 2021ean onartzea espero da espainiar Parlamentuan. Baina izapidetzeak luze joko du, luzeegi batzuentzat. Bestea da bidean jasango dituen lobbyen presioen ondorioz erabiltzaileari benetako erabaki ahalmenik emango ote dion.

Bitartean, sufrikarioari eustea ala eutanasia autokudeatzea beste aukerarik ez dago, hots, “pentobarbital” farmakoa lortzea, iruzurrak gaindituta (Argigarriak dira Pello Zubiria Kamionok “Argia” aldizkariaren 2.706 zenbakian ematen dituen datuak). Bitartean, mendekotasun egoeran bagina aurkituko genukeen agertokia aurreikusi eta bermatzeko ariketa egin dezagun.

Nik dagoeneko egin daukat Aurretiazko Borondateen Dokumentua (ABD), eta beste neurrien artean, balizko legearen zain, eutansiaren aplikazioa bertan jaso daukat [<https://labur.eus/O75u9>]. •